



## **ELIKADURA IRAUNKORRAREN ALDEKO MERKATARITZA-SAREA**

### **Gure lan-prozesua:**

Getxoko Udaleko ekonomia sustatzeko arloak proiektu bat jarri du abian, elikagaien iraunkortasunaren aldeko apustua egiten ari den merkataritza sustatzeko, eta, horretarako, tokiko saltokien elkarlaneko sare bat bultzatu du.

2022ko otsailean eta martxoan, proiektuaren lehen jarduketara egin zen, ekimenean interesa duten eta elikagaien jasangarritasunaren aldeko lokalen sareko kide izan nahi zuten elikadura-saltokiak identifikatzeko. Udalerrian dauden 186 elikagai-establezimenduetako 83 saltokik adierazi zuten interesa ekimenean, hau da, guztizkoaren % 45ek. Negozio horien % 97rentzat jasangarritasuna benetan alderdi garrantzitsua da.

Ondoren, 3 tailer parte-hartzaile egin ziren, saltoki-sarearen lan-oinarriak elkarrekin sortzeko. Fase honetan 10 saltokitako trakzio-talde bat parte hartu zuen, eta honako hau ezarri zuten:

- Sare hori eratzearen helburu nagusia beste kontsumo mota bat sustatzea da, maila globalean elikagaiak ekoizteak dakarrenaz kontzienteagoa dena, eta elkarrengandik ikasiz batera jardun ahal izatea.
- Sarean parte hartu ahal izateko irizpideen artean nabarmentzen da tokiko merkataritza txikia izan behar duela eta egiteko modu batzuk aldatzeko prest egon behar duela, elkarrekiko errespetuan eta lankidetzan oinarrituta.
- Tokiko merkataritzan garatu behar diren funtsezko arloak hauek dira:
  - Hurbileko produktua
  - Zero xahutzea
  - Ekoizpen ekologikoa
  - Sasoiko produktua
  - Ekonomia zirkularra
  - Elikadura osasungarria
  - Kontsumo arduratsua

Lantalde horrek tokiko merkataritzaren lehentasunezko 2 erronka identifikatu zituen, sare hori eraikitzen hasteko:

- Sentsibilizazioa eta prestakuntza sustatzea
- Tokiko banaketa iraunkorra